

Koronabirusen garaian ikastea

Hemen dekalogo bat duzue, urrutiko lana hobeto kudeatzeko.

1. Iratzargailua jarri jaikitzeke: errutina ez galtzea garrantzitsua da.



2. Higienea: ikastera eseri aurretik, dutxatu eta jantzi klasera joango bazina bezala.



3. Zaindu ikasteko giroa: bilatu leku lasai bat eta argitsua ikasteko.



4. Eginkizun-zerrenda bat egin: aztertu eta egin behar duzun guztia jasotzen duen zerrenda. Hau egiteko irakasgai bakoitzean egin behar duzuna berrikusi.



5. Ordutegi bat sortu: egin ikasketa-ordutegi bat, eskola-ordutegia errespetatuz. Entregatu beharreko zereginen egutegia egin.



6. Eutsi lan-erritmoari: 6-8 orduko lan-karga egunero. online-eskolak barne.



7. Ikasketa-metodo ona erabil: irakurri, azpimarratu, eskemak egin, laburpenak, ariketak...

<https://sites.google.com/iespiobarobjabhi.net/httpswww-iespiobarobjabhi-neteu/ikas-teknikak?authuser=0>



8. Atsedanak zaindu, etenaldiak egin estudioan, egin ditzakezun gauzak bilatu deskonektatzeko: irakurri, musika entzun, erlaxazioa, lagunekin hitz egin eta zure etxebizitzak eskaintzen dizun aukeren arabera bilatu modu ezberdinak ariketa fisikoa egiteko (yoga, zomba, youtuben tutorialak....).



9. Familiakoen artean jarduerak egin: sukaldatu, etxeko garbiketa, mahai-jokoetara jolasteko (trivial, kartak, xake, damak, monopoly...), pelikula batzuk batera ikusi eta solasaldiak izateko aprobetxatu aukera ezin hobea da.



10. Kontsultatu zure irakasleak: gai-zerrendarekin zalantzarik baduzu, jarri harremanetan dagokion irakaslearekin.

